Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Ayuntamiento Udala
irun

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022/10/26 eguneko onetsia bilkuran.

Aprobado por la Junta de Gobierno Local, en sesión de 26/10/2022

Irun, 3/11/2022
IDAZKARIA / LA SECRETARIA

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

BAZTERKETA EGOERAN DAUDENENTZAT EGUNEKO ARRETA ETA GAUEKO HARRERA ZERBITZUEN KUDEAKETA, ETA HEZKUNTZA LANA EGITEKO OHIKOA EZ DEN ORDU POLTSA BATEN KUDEAKETA KONTRATATZEA

- BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

ARLO SUSTATZAILEA	GIZARTE ONGIZATEA
ESPEDIENTE KODEA	2022ZAUN0039

-KLAUSULAK-

I.- XEDEA.

Kontratu honen xedea da bazterketa egoeran daudenentzat eguneko arreta eta gaueko harrera zerbitzuak kudeatzea, bai eta hezkuntza lana egiteko ohikoa ez den ordu poltsa bat kudeatzea ere.

I.- ZERBITZUEN DESKRIBAPENA.

1.-GIZARTE BAZTERKETA EGOERAN DAUDEN PERTSONEI EGUNEZ ARRETA ESKAINTZEKO UDAL ZERBITZUA

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak xedatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren parte dela Eguneko Laguntza Zerbitzua, eta, gainera, zehazten du oinarrizko arreta zerbitzua dela (22.1.7 artikulua), eta zerbitzu horren hornidura eta prestazioa Udaleko Gizarte Zerbitzuek bermatu behar dutela.

Era berean, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, xedatzen du, egunean zehar pertsonen eskura bitarteko bat jartzen duen zerbitzua dela eguneko arreta zerbitzua (1.7). Zerbitzu horretan

intentsitate txikiko laguntza eskaintzen zaie, oinarrizko elikadura eta higiene premiak asetzeko.

Eskakizun txikiko eta aldi baterako zerbitzua da, eta honako funtzio hauek betetzen ditu:

- Oinarrizko beharrak estaltzea, erabiltzaileei leku bat eskainiz nork bere burua babesteko, garbitzeko eta egunez jateko.
- Erabiltzaileei informazioa ematea dituzten eskubideei eta eskura ditzaketen gizarte baliabideei buruz, eta beren egoera normalizatzeko bidean kudeaketak egiteko orientabideak ematea.

Bazterkeria egoeran dauden 18 urteko edo gehiagoko pertsonak dira baliabidearen hartzaileak.

Honako prestazio hauek izango ditu zerbitzuak:

1.- Gizarte Zerbitzuen prestazioak*:
1.1- Informazioa
1.2- Bitartekaritza-bitartekotza
1.3- Esku hartze hezitzailea eta psikosoziala (entzute aktiboa eta emozioei eustea).

2 .- Prestazio osagarriak:
2.1- Mantenua (hamaiketakoa eta askaria); eta Udalak baimena emanez gero, bazkaria.
2.2- Norbere higienea
2.3- Arropa garbiketa
2.4- Kontsigna
2.4- Laguntzarako gunea (irakurketa, ordenagailuak, mahai jokoak, atseden hartzeko lekua, tailerrak...)
2.6- Korrespondentzia jasotzea eta bertaratze kontrola udalerrian izaera sozialeko errolda duten pertsonentzat.

Bazterturik dauden pertsonentzako eguneko arreta zerbitzua Zubia zentroan dago gaur egun (Mirarietako Ama Birjina kalea, z/g, Irun), etorkizunean beste leku batzuetan kokatzeko aukerari kalterik egin gabe.

Zerbitzua urteko egun guztietan irekiko da. Zerbitzuaren nahitaezko ordutegia 09:00etatik 21:00etara izango da, astelehenetik igandera.

Udalak ordutegi horiek noiznahi aldatzeko aukera izango du, egoki irizten badio, lan egin beharreko eguneko orduen guztizko kopurua aldatu gabe.

Zerbitzuaren funtzionamendua Gizarte Jantokiaren eta Elkargunearen Erregelamenduan ezarritako arauek arautuko dute (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2014ko abuztuaren 21a), edo, hala badagokio, haren ordezko arauek, Gizarte Ongizate Arloak ezartzen dituen jarraibideek, Barne Araudi batean jaso daitezkeenak, eta kontratazio hau arautzen duten

- Zerbitzuan eskaintzen diren gizarte zerbitzuen prestazio teknikoen definizioak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren III. eranskinean jasotakoak dira.

Baldintza Ekonomiko-Administratiboen eta Teknikoen Agirian ezarritako baldintzek. Nolanahi ere, une bakoitzean indarrean dagoen araudiari egokituko zaio funtzionamendua.

Hona hemen azken 5 urteetako jarduera datuak:

	2017	2018	2019	2020	2021
Erabiltzaile kop.	490	1239	841	720	778
Otordu kop.	19.250	20.657	17.286	21.627	17.167
Higiene zerbitzuen kop.	3.471	3.679	2.416	5.536	6.913
Garbitegiko zerbitzuen kop.	1.243	1.190	1.215	1.400	922

2.- GAUEKO HARRERA ZERBITZUA

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak xedatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren parte dela Eguneko Laguntza Zerbitzua, eta, gainera, zehazten du oinarrizko arreta zerbitzua dela (22.1.8 artikulua), eta zerbitzu horren hornidura eta prestazioa Udaleko Gizarte Zerbitzuek bermatu behar dutela.

Era berean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak ezartzen duenez, laguntza intentsitate txikiko tresna da gaueko harrera zerbitzua, eta haren bidez gaua pasatzeko baliabide bat eskaintzen zaie bazterkeria egoeran dauden pertsonei, batez ere iragaitzazkoei eta etxerik gabeko pertsonei, eta horrekin batean gaua emateko oinarrizko prestazioak, mantenua eta higiene pertsonala ere.

Gaueko harrera zerbitzua Zubia Inklusio Zentroaren instalazioetan dago (Irungo Ama Birjina Mirarietakoa kalea, z/g), etorkizunean beste leku batean kokatzeko aukerari kalterik egin gabe, **eta gehienez 29 plaza ditu**. Bada plaza aurreikuspen bat, kopurua bereizi gabe, egonaldi laburretarako eta egonaldi labur luzatuetarako Bidasoa eskualdean errotze soziala duten eta/edo erroldatuta dauden pertsonentzat, bai eta tenperatura hotzetarako egonaldiak ere Hotzaren Dispositiboa aktibatzen den aldietarako.

Modu iraunkorrean funtzionatzen du urteko gau guztietan, 21:00etatik 09:00etara. Udalak ordutegi horiek noiznahi aldatzeko aukera izango du, egoki irizten badio, lan egin beharreko eguneko orduen guztizko kopurua aldatu gabe.

Zerbitzua indartu egin ahal izango da urteko aldi jakin batzuetan, premia handiagoei eta/edo aparteko inguruabarrei erantzuteko.

Zerbitzuaren funtzionamendua Gizarte Jantokiaren eta Elkargunearen Erregelamenduan ezarritako arauek arautuko dute, Gizarte Ongizate Arloak ezartzen dituen jarraibideek, Barne Araudi batean jaso daitezkeenak, eta kontratazio hau arautzen duten Baldintza Ekonomiko-Administratiboen eta Teknikoen Agirian ezarritako baldintzek. Nolanahi ere, une bakoitzean indarrean dagoen araudiari egokituko zaio funtzionamendua.

Honako prestazio hauek izango ditu zerbitzuak:.

1.- Gizarte Zerbitzuen prestazioak*:
1.1.- Informazioa
1.2.- Beharren hasierako balorazioa, hala badagokio, eta jarraipenaren balorazioa.
1.3.- Esku hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala: esku hartze psikosoziala (entzute aktiboa eta emozioei eustea).

2.- Prestazio osagarriak:
2.1.- Gaua igarotzea
2.2.- Mantenua (afaria eta gosaria)
2.3.- Norbere higienea
2.4.- Arropa garbiketa
2.5- Kontsigna
2.6.- Larrialdiko oinarrizko arropa.

Hona hemen azken 3 urteetako jarduera datuak:

	2019	2020	2021
Erabiltzaileak	665	274	192
Emandako gau kopurua	7764	7088	8269

3.- HEZKUNTZA LANA EGITEKO OHIKOA EZ DEN ORDU POLTSA

Urtean gehienez 100 orduko poltsa ezarri da gizarte hezitzailearentzat eta/edo gizarte integratzailearentzat, honako testuinguru hauetan gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzeak egiteko:

- Etxerik gabeko pertsonen gaueko zenbaketa.
- Komunitatea sentsibilizatzea eta inplikatzea bizitegi bazterketako egoerak prebenitzeko eta haiei aurre egiteko.

Poltsa hori profesional bati edo batzuei egokitu ahal izango zaie, modu sekuentzialean edo aldi berean.

Lan ordu horiek Gizarte Ongizate Arloak eskatuta aktibatuko dira.

* Zerbitzuan eskaintzen diren gizarte zerbitzuen prestazio teknikoen definizioak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren III. eranskinean jasotakoak dira.

1.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.

Baldintza Administratiboen Agirian xedatutakoa deusetan galarazi gabe, enpresa esleipendunak honako betebehar hauek izango ditu:

1.1.- Zerbitzuak kudeatzeko proiektua.
1.2.- Zerbitzuen hartzaileei zuzeneko arreta ematea.
1.3.- Zerbitzuen kudeaketa eta koordinazioa.
1.4.- Hornidurak jartzea.
1.5.- Instalazioak eta altzariak egokitzea eta mantentzea.
1.6.- Dokumentuen kudeaketa.
1.7.- Instalazioak irekitzea eta ixtea eta sarrerak kontrolatzea.

1.1.- ZERBITZUAK KUDEATZEKO PROPOSAMENA

Erakunde esleipendunak proposamen teknikoa aurkeztu beharko du zerbitzuen kudeaketaren hasieran, Baldintza Teknikoen Agiri honetan ezarritakoaren arabera. Proposamen horretan honako alderdi hauek jasoko dira:

1. Zerbitzuen antolaketa eta kudeaketa.
2. Erabiltzaileen egoera normalizatzea helburu duten esku hartzeak garatzeko aukera ematen duten esku hartze eta tresnen metodologia.
3. Ekintzak aztertzeko eta ebaluatzeko sistema.
4. Profesionalen taldeari laguntza teknikoa ematea.

Proposamen teknikoak Gizarte Ongizate Arloaren onespena beharko du.
Dokumentu hori urtero eguneratuko da, eta zerbitzuen prestazioa hobetzeko metodologia eta antolamendu mailetan komeni diren berrikuntzak txertatuko dira.

1.2.- ZERBITZUEN ERABILTZAILEEI ZUZENEKO ARRETA EMATEA

Erabiltzaileei emango zaien arreta ereduak pertsona eta laguntza harremanak izango ditu ardatz, eta laguntza instrumentala, emozionala, hezkuntzakoa eta harremanetakoa eskainiko zaie, pertsonaren garapen autonomoa eta gizarteratzea hobetzen laguntzeko.

Genero ikuspegia eta aniztasunarekiko errespetua zeharka txertatuko dira.

Erakunde esleipendunak erabiltzaileei dagozkien prestazioak eman beharko dizkie, bai eta haien egoera normalizatzeko kudeaketak egiten lagundu ere.

Eguneko Arreta Zerbitzuan oinarrizko premiak beteko dira, eta erabiltzaileei leku bat eskainiko zaie egunean zehar babesteko, garbitzeko eta jateko, bai eta norbera garbitzeko eta arropa garbitzeko tresnak ere. Halaber, kontsigna zerbitzua eskainiko da.

Errolda soziala duten pertsonen kasuan, korrespondentzia zerbitzua emango da (postontzi pertsonalizatuak, sarbidearen jarraipenarekin).

Gaueko Harrera Zerbitzuan, gaua pasatzeko baliabidea eskainiko zaie etxerik gabeko pertsonei, eta oinarrizko prestazio hauek eskainiko zaizkie halaber: gaua igarotzea, mantenua (afaria eta gosaria), norbere higienea, kontsigna eta larrialdiko oinarrizko arropa.

Bi zerbitzuetan bermatuko dira informazio zerbitzua eta esku hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala: esku hartze psikosoziala (entzute aktiboa eta emozioei eustea), era horretako zerbitzuetarako ezarritako eskumenen barruan.

Erabiltzaileei arreta emateko, Gizarte Ongizate Arloak onartutako prozedura, araudi, eredu eta planei jarraituko die erakunde esleipendunak.

1.3.- ZERBITZUEN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIOA

Zerbitzuen kudeaketa eta koordinazioa zerbitzu guztien nahiz pertsona bakoitzarekin egiten diren esku hartze partikularren planifikazioarekin, jarraipenarekin eta ebaluazioarekin lotutako eginkizunetan datza. Talde Tekniko Profesionalaren eginkizunen atalean jaso dira lan horiek.

Zentroa eta bere zerbitzuak kudeatzeko, **Irungo Udalak emandako tresna informatikoak erabili beharko ditu enpresa esleipendunak**. Gainera, kontratua indarrean dagoen bitartean, Irungo Udalak, egokiagotzat hartzen badu, beste tresna bat ezarri ahal izango du zentroa kudeatzeko, zerbitzua errazago kudeatzeko eta zentroaren kudeaketaren ustiapen datuak ateratzeko.

Era berean, enpresa esleipendunak **iradokizunak, kexak eta erreklamazioak** jasotzeko sistema izango du, bai eta erabiltzaileek parte hartzeko bideak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen duen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Urtean behin, eta udal langileen aurrean, zerbitzuen erabiltzaileen gogobetetze maila baloratuko da Udalaren eta esleipendunaren artean adostutako galdetegiaren bidez.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

1.4.- HORNIDURAK JARTZEA

Enpresa esleipendunak zentroaren bizigarritasuna eta funtzionaltasuna bermatzen duten elementu materialak birjarri edo erosi beharko ditu, bai eta haren funtzionamendurako beharrezkoak diren hornidurak ere. Honako hauen horniduraz arduratu beharko du:

a) Mantenua
b) Norbere higienea eta garbitegia
c) Botikineko gaiak eta botikak
d) Larrialdiko arropa
e) Instalazioak eta etxeko ehunak garbitzeko produktuak
f) Administrazio materiala (bulegoa)
g) Erabiltzaileentzat antolatzen diren tailerretarako eta jardueretarako behar den materiala.

a) Mantenua

Erakunde esleipendunak hamaiketakoa eta askaria (edari beroak, fruta, jogurtak, opilak, galletak, ogia, ogitartekoak...) eskainiko dizkie Eguneko Arreta Zerbitzuaren erabiltzaileei, egunean zehar oinarrizko elikadura beharrak asetzeko.
Bazkarien eta afarien kasuan, jaki prestatuak emango dira, eta dieta orekatua, aberatsa, askotarikoa eta osasungarria ziurtatu beharko du, jantokia erabiltzen duten pertsonei nutrizio ekarpen egokia emateko. Horretarako, menuak egin beharko dira, Dietetikan eta Nutrizioan aditua den pertsona batek gainbegiratuta. Oinarrizko dietak, dieta halalak eta begetarianoak emango dira, bai eta, behar izanez gero, dieta medikoak ere.

b) Norbere higienea eta garbitegia

Norbere higienerako beharrezko gaiak emango zaizkie pertsonei (xanpua, dutxatzeko gela, xaboi pastillak, hortzetako eskuila eta pasta, orrazia, bizarra egiteko hortzak, emakumeen higiene produktuak, eskuoihalak, oheko arropa...).

Era berean, arropa garbitzeko behar diren materialak eta hornidurak emango ditu enpresa esleipendunak.

c) Botikineko gaiak eta/edo botikak.

Oinarrizko premiak betetzeko eginkizunen barruan, beharrezkoa izanez gero, botikineko gaiak eta/edo errezeta medikorik behar ez duten botikak eskainiko dira.
Era berean, zerbitzuen erabiltzaileei agindutako botikak eman eta ordaindu beharko ditu enpresa esleipendunak.

d) Larrialdiko arropa

Gaueko Harrera Zerbitzuan emango da, erabiltzaileak arroparik edo oinetakorik ez badu edo hondatuta badaude.

e) **Instalazioak eta etxeko ehunak garbitzeko produktuak**

f) **Administrazio materiala (bulegoa)**

g) **Erabiltzaileentzat antolatzen diren tailerretarako eta jardueretarako behar den materiala.**

1.5.- INSTALAZIOAK ETA ALTZARIAK EGOKITZEA ETA MANTENTZEA

Esleipendunari dagokio bere esku jarritako instalazioak mantentzea eta zaintzea (guneak mantentzeko lanak eta zentroaren bizigarritasuna eta funtzionaltasuna bermatzen duten elementu materialak birjartzeko edo erosteko lanak).

Dokumentu honen ondorioetarako, mantentze lantzat hartuko da bulegoak, instalazioak, ekipamendua eta kanpoko espazioak kontserbatzeko egiten diren aldizkako lan programatuen edo programatu gabeen multzoa, itxitura perimetrala barne, bizitza baliagarriaren aldian, aurreikusitako beharrak asetzeko baldintza egokiak izateko moduan.

Erakunde esleipenduna arduratuko da instalazioak behar bezala erabiltzeaz eta kontserbatzeaz, eta egoera onean kontserbatu beharko ditu. Hori guztia, Baldintza Agiri honen eranskinean instalazioen eta baliabide materialen zerrendari buruz jasotako zehaztapenen arabera.

Horretarako, esleipendunak honako hauek hartuko ditu bere gain:

a) **Garbiketa:** garbitasuna eta ordena izatea zerbitzuetan eta instalazioetan; garbitegi zerbitzuaren antolaketa eta kontrola; eta higiene eta garbiketa produktuak antolatzea eta hornitzea.
b) Ohiko erabileratik etorritako **funtzionamendu gastuak,** esate baterako, arratoigabetzea, fumigazioa eta desinfekzioa eta beste, eta horretarako beharrezkoak diren kontratu guztiak formalizatuko ditu. Bestalde, arriskuen prebentziorako eta arretaren segurtasunerako plana izango du.
c) Instalazioen ohiko narriaduraren ondorioz beharrezkoak diren **konponketak eta mantentze lanak egitea**, hau da, hormak pintatu, ateak, leihoak, beirak, heldulekuak, sarrailak, txorrotak, komuneko ontziak eta berogailuak konpondu eta mantendu, bonbillak eta larrialdietarako argiak aldatu, altzariak zaindu, garbiketa eta abar.
d) Altzariak eta tresnak **berritzea.**



e) **Zerbitzuari atxikitako ondasunak itzultzea**. Kontratua bukatzean, esleipendunak Irungo Udalaren eskura jarriko ditu, erabilera baldintza egokietan, zerbitzuarekin loturiko instalazioak eta ondasunak.

1.6.- DOKUMENTUEN KUDEAKETA

Erakunde esleipendunak banakoen datuak eta zerbitzuen funtzionamenduarenak bildu eta zaindu beharko ditu.

Fitxa bat irekiko da erabiltzaile bakoitzeko. Bertan, egindako esku hartze guztiak erregistratuko dira, Gizarte Ongizate Arloak erabiltzaile guztientzat zehazten duen banakako fitxa ereduaren arabera.

Datu guztiak Irungo Udalak emandako ekipo eta tresna informatikoetan tratatu eta gordeko dira kontratua indarrean dagoen bitartean, eta administrazioaren eskura egongo dira. Informazio hori euskarri informatikoan erregistratu beharko da datu base estandar batean, eta datu base horrek aukera eman beharko du datu horiek beste aplikazio batera esportatzeko.

Enpresa esleipendunak ezin izango du datu horien kopiarik egin.

-Erakunde esleipendunak Gizarte Ongizate Arloari jakinaraziko dizkio zerbitzuan gertatzen diren gorabeherak, alten, behin betiko bajen, erabiltzaileen absentziaren edo garrantzizkotzat jo daitezkeen beste gorabehera batzuen gainekoak, gorabehera horiek gertatzen diren egun berean.

-Enpresa esleipendunak Gizarte Ongizate Arloari helaraziko dizkio alten eta bajen proposamenak, eta erreferentziako gizarte langileak baimenduko ditu.

-Enpresak, gainera, Gizarte Ongizate Arloak eskatzen dizkion datuak eman beharko ditu, hark zehazten duen maiztasunarekin, zerbitzuen ebaluazioa errazteko.

-Esleipendunak informazio dokumentuak egin beharko ditu, erabiltzaileen informaziorako eskubidea bermatzeko. Dokumentu horiek hizkuntza koofizialetan idatzita egon beharko dute, bai eta zerbitzuen erabiltzaileek gehien erabiltzen duten edozein hizkuntzatan ere.

1.7.- INSTALAZIOAK IREKITZEA ETA IXTEA ETA SARRERAK KONTROLATZEA

Enpresa esleipendunak instalazioak ireki eta itxiko ditu, eta instalazioetarako sarbidea kontrolatuko du. Zerbitzuen erabiltzaileei bakarrik utziko die sartzen

2.- IRUNGO UDALAREN BETEBEHARRAK

Lizitatutako zerbitzuei dagokienez, Irungo Udalak egin beharreko lanak Udalak berak egoera bakoitzean zehazten dituen pertsonek, organoek edo beste edozein pertsonak egingo ditu.

Gizarte Ongizate Arloak zerbitzuen jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egiteko mekanismoak bultzatuko, ezarriko eta gainbegiratuko ditu.

Honako konpromiso hauek hartuko ditu Irungo Udalak:

a) Esleipendunaren eskura jarriko ditu zerbitzua dagoen instalazioak, behar bezala hornituak.

- Zerbitzu horiek garatzeko, Irungo Udalak kontratu honen erakunde esleipendunaren esku jarriko ditu Baldintza Agiri hauen eranskinean deskribatutako ondasun materialak eta instalazioak, kontratuaren iraupenaren epe berean.
- Gaur egun erabiltzen ari den lokala lekuz aldatu edo egokitu ahal izango da kontratua gauzatzen den bitartean, Irungo Udalaren jarraibideen eta baldintzen arabera.

  Irungo Udalak instalazioen egoera egiaztatzeko ikuskapenak egitea komeni den baloratuko du.

  Irungo Udalak eraikinean dauden materialen eta altzarien inbentarioa emango du, eta hura erkatu ondoren, erakunde esleipenduna arduratuko da material eta altzari horiek behar bezala erabiltzeaz eta kontserbatzeaz. Jarduera bukatutakoan oso hondatua dagoen edo desagertu den materiala berriz jarri beharko du, behar bezala arrazoituriko justifikazioa dagoenean izan ezik.
- Janari eginak emateko dago prestatua instalazioa, eta ez da egokia otorduak prestatzeko.
- Halaber, telefonia finkoko bi linea izango ditu, posta elektronikoa eta Interneteko konexioa.

b) Lokalean egin beharreko inbertsioen eta ekipamendu inbertsioen kudeaketa bere gain hartzea.

- Irungo Udalak bere gain hartuko ditu lokalean egin beharreko inbertsioak eta ekipamenduetan egin beharreko inbertsioak (Baldintza Agiri hauen arabera).
- Era berean, instalazioen asegurua sartuko du (edukitzailea) bere ondasunak aseguratzeko poliza orokorraren barnean, Udalak bere gain hartuz kalteak konpontzetik etorritako kudeaketa, kontratu honetatik etorritako mantentze lanei eta inbertsioei dagokienean izan ditzakeen erantzukizunei kalterik egin gabe.

c) Uraren, elektrizitatearen, berokuntzaren, telefonoaren eta Interneten ohiko kontsumoen kostuak bere gain hartzea.

d) Segurtasun zerbitzua
Segurtasun zerbitzua Irungo Udalaren kontura emango du, bai polizia kidegoekin egindako akordioen bidez, bai zaintza eta segurtasun zerbitzuak kontratatuta.

3.- BALIABIDEAK

Bere obligazioak betetzeko, kontratuaren esleipendunak honako baliabide hauek jarri beharko ditu zerbitzuaren eskura:

3.1.- GIZA BALIABIDEAK, LANBIDE PROFILAK ETA EGINKIZUNAK

3.1.1.- KONTRATUAREN ARDURADUNA:

Esleipendunak Irungo Udalarekin kontratu eta kontrol harremanak izango dituen erreferentea izendatuko du.
Esleipendunaren erabateko ordezkaritza izango du pertsona horrek eta jarduteko gaitasun osoa enpresaren izenean eta Udalaren aurrean, kontratuaren kudeaketarekin loturiko guztian.

3.1.2.- DIZIPLINA ANITZEKO TALDEA:

- **ZERBITZUEN ARDURADUNA:**

Pertsona bat arduratuko da eguneko arreta-zerbitzuaz, gaueko harrera-zerbitzuaz eta, ondorioz, zentroaz, eta lan teknikoak ere egingo ditu.
Dedikazioa lanaldi osokoa izango da, zentroan fisikoki egongo da eta gerta daitezkeen gorabeheretarako telefono bidez egongo da eskuragarri, zentroan bertan ez dagoenean.

Bere lanbide-kategoria Gipuzkoako Esku-hartze Sozialeko **Hitzarmeneko 2. taldearen** barruan egongo da.

Honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Zerbitzu guztien kudeaketa gidatzea, talde lana sustatuz, eta zerbitzu horietan lan egiten duten pertsonak gainbegiratzeko, laguntzeko eta suspertzeko gaitasuna erakutsiz.

b) Talde teknikoetako profesionalen funtzioak behar bezala garatzeaz arduratzea.

c) Kontratuan sartutako zerbitzu guztietan erabiltzaileek dituzten eskubideak benetan baliatzen direla bermatzea.

d) Indarrean dagoen araudia, Gizarte Ongizate Arloak emandako jarraibideak eta gidalerroak eta barne araubideko arauak betetzen direla zaintzea, eta bizikidetzako oinarrizko arauak errespeta daitezen sustatzea.

e) Zerbitzuei atxikitako langileak zuzentzea eta beharrezko lan teknikoetan laguntzea.

f) Langileen etengabeko prestakuntza sustatzea eta planifikatzea, kudeaketa koordinazioarekin batera.

g) Baliabideen erregistroak, artxiboak, espedienteak eta dokumentazio indibiduala eta orokorra zaintzeaz arduratzea.

h) Aldian behin bilerak egitea kontratuan sartutako zerbitzu guztietako profesional taldearekin, esku hartzea behar bezala koordinatzen eta behar bezala jarraitzen dela bermatzeko.

i) Eskatzen zaion dokumentazioa Gizarte Ongizate Arlora igortzea.

j) Aldizka profesionalen zerrenda aurkeztea, aldaketak eta haien arrazoiak zehaztuta.

k) Zerbitzuen funtzionamendua sei hilean behin eta urtero ebaluatzea.

l) Erakunde esleipendunaren ordezkari izatea, zerbitzuak emateari dagokionez, Gizarte Ongizate Arloan, bai eta beste erakunde batzuen aurrean ere (Hezkuntza, Osasuna, Justizia, etab.).

m) Gizarte Ongizate arloan izendatutako teknikariekin aldian behin koordinazioak egitea, beharren arabera, Eguneko eta Gaueko Zerbitzuen bilakaeraren berri emateko, bai eta izandako gorabeheren berri emateko ere.

n) Gizarte Ongizate Arloak deitzen dituen bilera guztietara pertsonalki joatea edo bileraren izaeraren arabera dagozkion pertsonak bidaltzea.

o) Bileren edukiak, ondorioak edo zereginak transmititzea eta taldeko gainerako kideei helaraztea.

p) Eraikinak eta haien egiturak behar bezala mantentzen direla zaintzea.

q) Behar izanez gero, zerbitzuetan sor daitezkeen larrialdi edo gatazka egoeretan, lidergoa bermatzea eta arazoak konpontzea eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan.

- **TALDE TEKNIKO PROFESIONALA:**

Talde teknikoa 2. taldeko eta 3. taldeko profesionalek osatuko dute, diziplina anitzeko taldea bermatzeko. Bi taldeetako profesionalek eginkizunen erantzukizunen arabera banatu beharko dituzte zereginak, beren titulazioak eta prestakuntzak markatuta; beraz, 2. taldeko langileek konplexutasun- eta autonomia-maila handiagoa eskatzen duten zereginak egingo dituzte, beren titulazioarekin bat etorriz, eta 3. taldeko profesionalek konplexutasun- eta autonomia-maila ertainak eskatzen dituzten zereginak egingo dituzte, beren titulazioarekin bat etorriz.

Zerbitzuko Arduradunari dagokio Lantalde Tekniko Profesionalak zentroaren erabiltzaileen zuzeneko arretaren esparruan eta koordinazio-lanetan egin beharreko eginkizunak eta zereginak banatzea, Irungo Udalaren oniritzia izanik. Zeregin eta zeregin horiek, nagusiki, honako hauek izango dira:

a) Erabiltzaileak egunero hartzea eta erregistratzea, erabiltzaile berrien lehen harrera egin eta erregistro fitxa irekita.

- Beharrizan eskakizunak eta preskripzio teknikoa egiaztatzea.
- Erabiltzen den zerbitzuari buruzko informazio espezifikoa (ezaugarriak, prestazioak, sartzeko baldintzak, araudia...).
- Erabiltzaileei informazioa ematea, zer eskubide dituzten eta zer baliabide sozial erabil ditzaketen jakiteko.
- Euren egoera normalizatzeko kudeaketak egiteko orientabideak.

Zerbitzua erabiltzen duten pertsonen eta jasotzen dituzten prestazioen erregistro indibidualizatua egunero edo behar denean bidaliko zaio Irungo Udaleko Gizarte Ongizateko Esku hartze Komunitarioko Zerbitzuari, kontratuaren erreferentea baita.

b) Erabiltzaileentzako zuzeneko arreta egunero koordinatzea eta planifikatzea.

Talde teknikoak egunero koordinatu eta planifikatu beharko du erabiltzaileen zuzeneko arreta.

Gainera, Eguneko Arreta eta Gaueko Harrera Zerbitzuen erabiltzaileek, diziplina anitzeko talde teknikoko erreferentziako profesional bat izango dute esleitua, eta hura izango da zerbitzuetan esku hartzeko prozesuaren buru, kasua modu integralean eta diziplinartekoan jorratuz.

Profesional horrek Banakako Arreta Plana (BAP) aktibatuko du. Plan hori egiten bada, planaren jarraipena egiteaz arduratuko da, eta zerbitzuetan egiten diren esku hartzeak ebaluatuko ditu, behar diren erabakiak hartzeko, arreta jasoko duen pertsonarekin elkarlanean eta beste profesional batzuekin koordinatuta.

c) Emozioei eustea eta krisiak eta bizikidetza arazoak bideratzea.

Emozioei eustea (entzute aktiboa) krisi pertsonaletan, eta, ondoren, talde teknikoari horren berri ematea, gaiari heltzeko.

Sortzen diren bizikidetza edo antolaketa arazoak (banakakoak edo taldekoak) bideratzea, eta informazio hori Gizarte Ongizate Arloko teknikariei helaraztea, jarduerari jarraipena eman behar bazaio ere.

d) Koordinazio bilerak Lehen Mailako Arreta Zerbitzuarekin:

Noizean behingo edo unean uneko koordinazio bilerak egingo dira izendatutako udal teknikariekin.

Eguneko Arreta Zerbitzuko talde teknikoak Harrera eta/edo Lehen Mailako Arreta Zerbitzuko gizarte langilearekin koordinatu beharko du, zerbitzuen artean gertatzen diren deribazio guztietan.

Arreta berezia eskainiko zaio kasuan kasuko erreferentziako gizarte langilearekin lankidetzan aritzeari, Banakako Arreta Plana (BAP) egin, jarraitu eta ebaluatzeari dagokionez.

Era berean, Udaleko Gizarte Zerbitzuek hala erabakitzen duten kasuetan, Banakako Arreta Planak egingo dituzte Eguneko Arreta Zerbitzuko teknikariek.

e) Lehen Mailako Arreta Zerbitzuko gizarte langileek egindako Banakako Arreta Planen (BAP) barruan ezartzen diren akordioak eta ekintzak gainbegiratzea.

Banakako Arreta Planaren (BAP) barruan erabakitzen diren ekintzak egitea, hala nola, BAPen adostutako zentrotik kanpoko akonpainamenduak, betiere pertsonak onartzen baditu, bere eskubideak baliatzeko izapide administratiboak egiteko.

Osasun larrialdietako zerbitzuei dagozkienak ere sartzen dira, haien arreta bermatzeko beharrezkotzat jotzen denean.

Informazioa testuinguru komunitarioari buruz eta BAPen jasotako baliabideak eskuratzeari eta erabiltzeari buruz.

Erabiltzaileak ez badu Udal BAPik, babes sozial eta sanitarioko sistemarako sarbidea erraztuko duten kudeaketak egiten lagundu beharko zaio erabiltzaileari.

f) Zerbitzuetan dauden plazak kudeatzea.

Gizarte Ongizate arloarekin lankidetzan, talde tekniko profesionalak zerbitzuetan dauden plazak kudeatuko ditu, eta ezarritako irizpideak aplikatuko ditu baldintza teknikoei, gabealdiei, egonaldi luzeei, iraungipenei, etenaldiei eta zehazten diren gainerako jarraibideei dagokienez.

g) Higienerako, garbitegiko, mantenuko, gaua pasatzeko, kontsignako eta korrespondentziako guneak antolatzea eta gainbegiratzea.

Zentroko talde tekniko profesionalak zainduko du arreta jasotzen duten pertsonen oinarrizko premia guztiak behar bezala betetzen direla.

h) Eguneroko txostenak egitea.

Zentroko talde tekniko profesionalak idatzizko dokumentazioa bidaliko die Gizarte Ongizate Arloak izendatutako udal teknikariei, honako hauek, besteak beste:

- Zerbitzuen okupazioa, sarrerak eta irteerak jasotzen dituen dokumentazioa.
- Arretaren datu kuantitatiboak eta zerbitzuen funtzionamenduaren balorazio kualitatiboa jasotzen dituzten txostenak, Gizarte Ongizate Arloarekin adostutako ereduaren arabera.

Gizarte Ongizate arloak, bestalde, egokitzat jotzen diren beste txosten batzuk eskatu ahal izango ditu, baita beharrezkotzat jotzen diren bilera guztiak ere.

i) Gorabeheren kudeaketa

Zentroko talde tekniko profesionalak antolatuko ditu emandako zerbitzuak, eta zerbitzu horien garapen normala sustatuko du, bizikidetza giro egokia zainduz eta sor daitezkeen gorabeherak kudeatuz (segurtasunarekin, osasunarekin, gizartearekin... loturik).

Zenbait gorabehera bideratzeko, Udalaren Zaintza eta Segurtasun Zerbitzuaren laguntza izango da. Zerbitzu horri bertan egoteko edo jarduteko eskatu ahal izango diote bideratzeko zailak diren egoeretan hala behar denean.

Larrialdiko zerbitzu medikoak behar izanez gero, enpresa esleipendunak bermatu beharko dio artatutako pertsonari zerbitzu mediko horiek agintzen duten medikazioa jasoko duela, baita botika hori ordainduko duela ere.

Gerta litezkeen gorabehera larrien edo oso larrien berri ematea Gizarte Ongizate Arloari, eta pertsonen egoeran gerta litezkeen aldaketa nabarmenak eguneratzea, abian den esku hartzean eragina izan badezakete.

Zehapen prozedura bat hastea ekar lezaketen eta udal teknikarien balorazioa behar duten gorabehera larriei buruzko txostenak idaztea.

Zentroko talde tekniko profesionalak gorabeheren parteen bi liburu izan beharko ditu (zerbitzu bakoitzerako bat). Horiek aldian-aldian eguneratu beharko dira, eta Gizarte Ongizate Arloaren esku jarri eguneratzen diren bakoitzean.

Era berean, Zentroko talde tekniko profesionalak arlo horretan eskumena duen organoak esleitzen dizkion eginkizun guztiak bete beharko ditu.

3.1.3.- ZEREGIN OSAGARRIETARAKO PROFESIONALAK

Esleipendunak ziurtatu beharko du, halaber, gainerako zereginak behar besteko gaitasuna duten langileekin egingo dituela. Langile horiek bere kabuz edo azpikontratazio bidez egin ahal izango ditu.

Kontzeptu honetan sartzen dira janari-zerbitzuari, garbiketari, eraikinaren eta instalazioen mantentze-lanei eta lan osagarrietarako (administrazioa) laguntza teknikoari buruzko zereginak.

3.2.- LANGILE-HORNIDURA

Zerbitzuetan, honako langile hauek beharko dira:

3.2.1.- EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA

Zerbitzua emateko eskatzen den nahitaezko gutxieneko lanbide-taldea, arduradunaren figura barne, jarraian deskribatzen dena da, eta ordu-tarteetara eta jarraian jasotzen den lanbide-kategoriara egokitu beharko da:

- 2. Taldeko Zerbitzuaren arduraduna, ikastetxean aurrez aurreko ordutegia, astelehenetik ostiralera (ikus plegu hauetako 3.1.2 atala).

- Gainerako talde teknikoak:

Astelehenetik ostiralera lanegunetan	**Profesionalak**
8:45h - 16:15h	1 TEKNIKOA, 2. taldea (Ordutegi osoa) 1 TEKNIKOA, 2. taldea * (4,5 ordu bakarrik) 1 TEKNIKOA, 3. taldea * (5 ordu bakarrik)
16:00h - 21:00h	1 TEKNIKOA, 2. Taldea (Ordutegi osoa) 1 TEKNIKOA, 3. taldea (Ordutegi osoa)
Larunbat, igande eta jaiegunetan	
9:00h - 21:00h	1 TEKNIKARI, 2. Taldea (Ordutegi osoa) 1 TEKNIKARI, 3. Taldea (Ordutegi osoa)

* Bi teknikari horien ordutegia Udaleko Zerbitzuarekin adostuko da, erabiltzaileen bolumenean sortzen diren beharren arabera.

3.2.2.- GAUEKO HARRERA-ZERBITZUA:

Zerbitzuan kokatutako langileen gutxieneko prestasuna, irekitzeko ordutegian, 2 pertsonakoa izango da gutxienez:

Egunero	
21:00h - 9:00h	1 TEKNIKARI, 2. Taldea (Ordutegi osoa) 1 TEKNIKARI, 3. Taldea (Ordutegi osoa)

Eguneko Arreta Zerbitzuko arduradunak ere bere gain hartuko du gaueko harrera-zerbitzuko langileen ardura, eta, behar izanez gero, telefonoz aurkitu ahal izango da.

3.2.3.- ZEREGIN OSAGARRIETAKO PROFESIONALAK

Esleipendunak nahikoa langile izango ditu zeregin osagarriak egiteko, eta bere kabuz edo azpikontratazio bidez egin ahal izango ditu.

3.3.- LANGILEEN ANTOLAKETA / KUDEAKETA

a) Talde profesionalak

Talde profesionalak eta profesionalen titulazioa bat datoz Gipuzkoako Esku hartze Sozialeko hitzarmenarekin.

Zerbitzuen arduradunaren eginkizuna betetzen duen pertsona Gipuzkoako Esku hartze Sozialeko Hitzarmeneko 2. Talde Profesionalekoa izango da eta **gizarte-bazterkeriako egoeran edo gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonekin edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonekin lan egiten duten erakunde/elkarteekin gutxienez urtebeteko lan-esperientzia duela egiaztatzen duena.**

2. Taldeko talde tekniko profesionaleko kideek, gutxienez, unibertsitateko erdi mailako prestakuntza (diplomaturak edo antzekoak) egiaztatu beharko dute Esku Hartze Sozialaren gaietan edo harekin zerikusia duten gaietan: Gizarte Hezkuntza, Gizarte Lana, Terapia Okupazionala. Esku hartze Sozialaren arloan egiaztatutako beste kualifikazio eta esperientzia mota batzuk ere (Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogia) kontuan hartu ahal izango dira.

3. Taldeko talde tekniko profesionaleko kideek, gutxienez, goi mailako prestakuntza maila egiaztatu beharko dute, baina ez nahitaez unibertsitate mailakoa (goi mailako heziketa-zikloak, batxilergoa), eta/edo Esku hartze Sozialaren arloan egiaztatutako kualifikazioa eta esperientzia (bereziki aintzat hartuko dira Gizarteratzearen, Animazio

Sozio-Kulturalaren titulazioak eta Zerbitzu Soziokulturalen eta Komunitatearekiko zerbitzuen alorreko goi mailako titulazioak).

Erakunde lizitatzaileek profesional guztien antolaketa sistema proposatu beharko dute langileen funtzioei, zereginei, ekipoei, erreferentziazko figurei, prozedurei, txandei eta guardiei dagokienez, zerbitzuak hobeto emateko.

Kontratua gauzatzean aldaketak gertatzen badira zerbitzuak osatzen dituzten pertsonei dagokienez, erakunde esleipendunak berehala jakinaraziko dizkio Irungo Udalari. Udalak ahalmena izango du proposatutako pertsona berria onartzeko edo ez onartzeko, lanbide profilera eta eskatzen den kualifikaziora egokitzen den aintzat hartuta.
Ahaleginak egingo dira bi sexuek, gutxienez, zerbitzuetako teknikarien dedikazio osoaren % 40ko ordezkaritza izan dezaten.

Erakunde esleipendunak lanpostuko edozein absentzia bete beharko du, eta esleitutako langileen ordez kualifikazio bereko beste bat jarriko du, Baldintza Agiri hauetan eskatzen den profil berekoa. Estaldurak berehalakoa izan behar du, eta gorabeheraren berri eman beharko zaio Irungo Udalari 24 orduko epean, gehienez ere.

Erakunde esleipendunarekin edozein arrazoirengatik edo harremanengatik, harreman iraunkorra nahiz iragankorra izan, kolaboratzen duten pertsona guztiak haren zerbitzura egongo dira soilik, eta, beraz, ez dute inolako lan harremanik izango Irungo Udalarekin. Erakunde esleipendunak bere gain hartu beharko ditu pertsona horiei buruz indarrean dagoen araudiaren ondoriozko gizarte, lan edo zerga harreman guztiak, eta administrazio kontratatzaileak ez du inolako erantzukizunik izango alor horietan.

Aurrekoarekin bat etorriz, Irungo Udalak ez du inolako erantzukizunik izango erakunde esleipendunaren, edozein tituluren bidez harekin kolaboratzen duten pertsonen edo zerbitzuak ematen dizkioten pertsona guztien ekintzek edo omisioek hirugarrenei eragindako kalteengatik.

Enpresa esleipendunak lan harremanen arloan ezarritakoa bete beharko du, bai eta legez aplikagarri zaion beste edozein araudi ere.

b) Bestelako giza baliabideak

Era berean, bermatuko du gainerako lanak ere beharreko gaitasuna duten langileekin egingo dituela, bere langileekin egin ditzake lan horiek edo bestela azpikontratazioaren bidez.

Kontzeptu honetan sartuta egongo dira otordu zerbitzuei, garbiketari, eraikinaren eta instalazioen mantentzeari dagozkien lanak, bai eta lan osagarrietarako (administrazioa) laguntza teknikoa ere.

c) Asegurua

Erakunde esleipendunak Erantzukizun Zibileko Asegurua sinatu beharko du antolatzen diren jardueren garapenaren eta lokalaren erabileraren ondorioz gerta litezkeen kalteak estaltzeko.

Era berean, kalteen poliza bat sinatu beharko du eranskinean jasotako ondasunak aseguratzeko, eta Irungo Udala izango da haren onuraduna.

